

Año LVI. urtea

138 - 2024

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

(Euskal) ipuingintzaren
gakoak: Iban Zalduaren
«Ipuina adulterioa da»

Mikel Ayerbe Sudupe

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVI. urtea - N.º 138. zk. - 2024

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

(Euskal) ipuingintzaren gakoak: Iban Zalduren «Ipuina adulterioa da» Mikel Ayerbe Sudupe	325
Sluicing in Basque: a move-and-delete analysis Irene Macazaga Núñez	341
Hiru euskal testu argitara: Getariako eskutitzak (1796-1797) Olatz Leturiaga Angoitia	375
Uxue Apaolazaren «Manoletinak» (<i>Bihurguneko nasa</i>) ipuineko ekfrasiez: irakurketa proposamen bat Leire Iruretagoiena Goikoetxea	421
Aspectos de la formación del <i>Vocabulario Pomier</i> y su relación con el <i>Diccionario Trilingüe</i> : hápax, supuestas voces septentrionales y segundas documentaciones Joseba A. Lakarra	443
Haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko Gipuzkoako egoitza-harrerak: euskara, tutelatu ohien bizipenak eta hizkuntza-eskubideak Joana Miguelena Torrado, Odei Guirado Irasuegi, Maria Dosil Santamaria	563
Komunikazio-antsietatea, hezkuntza formala eta euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza Odei Guirado, Alaitz Santos	587
1958ko teatro-testu itzulien lehiaketa Pariseko Eskual Etxean Miren Ibarluzea Santisteban	617
Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikusketa bibliografiko bat Artzai Gaspar	649
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	677

(Euskal) ipuingintzaren gakoak: Iban Zalduaren «Ipuina adulterioa da»

Claves de la cuentística (vasca): «Ipuina adulterioa da» de Iban Zaldúa

Keys to (Basque) storytelling: «Ipuina adulterioa da» by Iban Zaldúa

Mikel Ayerbe Sudupe
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
mikel.ayerbe@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-0784-5535>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv138.1>

Argitalpen hau MHLI ikertaldea egiten ari den IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritz) proiektuaren eta MINECOK sustatutako PID2021-125952NB-I00 proiektuaren baitan egin da.

Jasotze data: 2024/05/05. Behin-behineko onartze data: 2024/07/22. Behin betiko onartze data: 2024/10/14.

LABURPENA

Iban Zalduaren *Ipuina engainua da* 2022ko liburuko «Ipuina adulterioa da» narrazioa xeheki aztertuko da. Bi plano dituen ipuina izanik –ipuingintzaren inguruko plano metafikzionala eta adulterio-istorio baten kontaketa–, haien arteko mugak nola lautotzen diren behatuko da. Helburu bikoitza du analisiak: (euskal) ipuingintzaz Zalduak eginiko gogoetak biltzea eta, gogoeta horiexek Zalduaren ipuin zehatz horretan nola txertatzen diren berrestez gain, Zalduaren ipuingintzaren zenbait gako aletzea. Era berean, aztertuko dugu ipuingintzaren esentziaren aldeko argudioak eta bestelako gakoak ez direla Elenaren koadernoko plano metafikzionalan gertatzen, adulterioaren abenturaren lerroartean baizik.

Gako hitzak: ipuingintza; Euskal Literatura; metafikzioa; Iban Zaldúa.

RESUMEN

En este artículo se analizará el relato «Ipuina adulterioa da» del libro de cuentos *Ipuina engainua da* (2022). Siendo un cuento con dos planos, un plano metaficcional y otro sobre una historia de adulterio, seguidamente se observará cómo se difuminan los límites entre ambos. El análisis tiene un doble objetivo: recoger las reflexiones de Zaldúa sobre el cuento y, en particular, sobre la cuentística vasca, y confirmar cómo se incorporan estas reflexiones en ese mismo cuento de Zaldúa. A medida que avanza el estudio, dicho estudio determinará que los argumentos a favor de la esencia del cuento no se desarrollan en el plano metaficcional del cuaderno de Elena, sino en el relato ficcional.

Palabras clave: cuentística; Literatura Vasca; metaficción; Iban Zaldúa.

ABSTRACT

This article will analyze the story «Ipuina adulterioa da» from the book *Ipuina engainua da* (2022). Being a tale with two levels, a metafictional plane around the creation of stories, and another one about a story of adultery, it will be observed how the limits of both levels are blurred. The purpose of the analysis is twofold: to gather Zaldúa's reflections on the short story and, in particular, on Basque storytelling, and to confirm how these reflections are incorporated in that specific short story by Zaldúa. As the study progresses, it will determine that the arguments in favour of the essence of the tale are not developed at the level of Elena's notebook, but in the fictional story.

Keywords: short stories; Basque Literature; metafiction; Iban Zaldúa.

1. SARRERA. 1.1. *Ipuina engainua da*. 2. «IPUINA ADULTERIOA DA». 2.1. Aurrekariak eta berridazketa. 2.2. Ipuinaren aurkezpena eta hipotesi nagusia. 3. ELENA-REN KOADERNOA: «IPUINA ADULTERIOA DA, ETA NOBELA FIDELTASUNA».
4. ELENA, ARITZ (ETA KOLDO): ADULTERIOAREN IPUINA. 5. ONDORIOAK.
6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

2020. urteko azaroa zen Booktegi argitaletxe digitalak Iban Zalduaren «Ipuina adulterioa da –Hitzaurre gisa–» ipuina argitara eman zuenean. *Ipuina* diogu, fikziozko adulterio-istorioa nagusitzen baita kontakizunean. Baina, ipuinak badu saia-keratik ere, Elena protagonistaren ardura nagusia argitaratze bidean den euskarazko ipuin-antologia baterako hitzaurrea idaztea baita. Gisa horretan, ipuinak ageriko bi plano eskaintzen ditu: Elena, Aritz eta Koldoren adulterio-istorioa batetik, eta ipuingintzaren gaineko Elenaren gogoetak, bestalde. Ageriko banaketa hori, ordea, lausotu egiten da ipuinak aurrera egin ahala eta, engainuaren bidetik, amaieran irakurleak ondorioztatu behar du kontuak ez direla aurrez uste bezalakoak. Izan ere, ipuina irakurri ahala jabetzen gara Elenaren plano metafikzionala litzatekeela ipuingintzaren inguruko gogoetak biltzeko eremu aproposena eta, hein batean behintzat, halaxe jasotzen dira plano horretan ipuinaren eta nobelaren arteko gatazka betidanikoaren auziak, egile eta obra zehatzen iruzkinak, zenbait idazleren ipuinlari- edo nobelagile-izaera eta, finean, ipuingintzari loturiko beste hainbat kontu. Alabaina, artikulu honen hipotesi nagusia beste bat da: hain zuzen, ipuin horretan ipuingintzaren inguruko ezaugarri edota ekarpen nagusiak adulterio-istorioaren planotik eratorri behar direla. Hau da, ipuinaren amaieran, adulterioaren istorioan gertatzen den ezusteak edo bira narratiboak ipuin guztiari eragiten diola eta adulterioaren planoan esanguratsuak diren hainbat gogoetak ipuingintzari buruz hausnartzeko ere balio dutela, alegia. Baina, ipuinaren azterketan sakondu aurretik, *Ipuina engainua da* liburuaz eta «Ipuina adulterioa» da kontakizunaren xehetasunez mintzatzea dagokigu.

1.1. *Ipuina engainua da*

Liburuz liburu berretsi du Iban Zalduak ipuingintzaren generoa ezin hobeki menderatzen duela eta bere ipuinetan, beste hainbat bertute izateaz gain, bikain korapilatzen dira ezustea, bat-batekotasuna, amarrua eta sakontasuna. 2022an Elkar argitaletxearekin kaleraturiko *Ipuina engainua da* kontakizunen bildumarekin, ordea, konfort-eremu literariotik harago joan eta narratiboki koxka bat estutu duela agerikoa da. Batetik, garapen luzeagoko ipuinen aldeko joera nabarmendu behar da; salbuespenik baden arren, gehienak 10 orrialde baino gehiagoko ipuinak dira, eta zenbaitzuek 30 edo 40 orrialde hartzen dituzte. Bestalde, argumentuari dagokionez, ipuin bakoitzean, gutxienez, bi azpi-trama korapilatuz estutzen da koska narratiboa, eta ikuspuntuak eta ikuspegiak ere tenkatzen ditu. Gainera, irakurleok jada ohituta gauzkan tonua edo giroa ere ezin egokiago planteatuta daude: gutxik dute elkarrizketak sortzeko Zalduak duen abilezia, eta harridurarako zirrikituak ere ez dira falta. Azken batean, *Ipuina engainua da* izenburutik hasita, fikzioaren aldeko jaidura aldarrikatzailea dario liburuari.

Ipuinaren generoak ahalbidetzen duen berehalakotasunaz baliatuz, *Ipuina engainua da* liburuko narrazioetan egungo zenbait auzi ekartzen dira hizpidera: arma-industria («Bisita bat arma-museora»), sare sozialak eta itxurakeria («Txio»), belaunaldi- eta familia-gatazkak («Marta Harnecker-en liburua», «Buztangorri ilunak»), eskola-segregazioa (izen bereko ipuinean)... Generoaren barneko muga formaletan mugitzen da uneoro kontalaria, ordea, eta auzion lanketa pertsonaien zio eta tentsio narratiboaren arabera da.

Esan bezala, ipuinak eraikitzeke autoreak darabiltzan askotariko teknika narratiboek abilezia handiko idazlea dela salatzen dute, konta-teknikak ondo ezagutzen dituela erakustez batera, hala nola bukaerako ezuste-efektuak («Festibalean», «Une horretara arte»), planoen arteko uztarketak («Julen Ezeizabarrena», «Diskotekarena», «Kongresuan»), fantasiaren eta errealtatearen arteko lausotzeak, eta laburtasunak eskainiriko bestelako hainbat baliabide narratibo. Ipuin eztegunak dira gehienak: itxuraz arinak kontateran, baina konplexuak gaien lanketan. Irakurraldi bakoitzean hazten dira eta, aldiro, amarru edo bestelako ikuspuntu berri bat harrapatzeko aukera gordetzen dute lerroartean. Izan ere, horixe da, zehazki, Zalduaren ipuinen indargune nagusia: «teknika literarioen ustiaketa egokia, orekatua eta, oroz gain, narrazioaren muinaren menpekoa» (Urkiza, 2022).

«Ipuina adulterioa da» azken ipuin magistralak bildumari izenburua eta zentzua emateaz gain, ipuingintzarekiko fidelotasuna berresten du, (euskal) ipuingintzaren gaineko saiakera moduko bat aurkezten baitu fikzioaren moztorropean.

2. «IPUINA ADULTERIOA DA»

2.1. Aurrekariak eta berridazketa

«Ipuina adulterioa da» kontakizunaren jatorriari dagokionez, *Ipuina engainua da* liburuaren amaierako oharrean aurkitzen dugu idazlearen aurreneko azalpena: «“Ipuina

adulterioa da” zenbait euskal idazleren ipuin bilduma baten “hitzaurre” izateko zioarekin idatzi nuen, Booktegitik argitaratu behar zuena, nahiz eta azkenean testuaren –eta beste idazleen ipuinen– edizio digitala baino ez zen egin, solte, 2020ko azaroan» (Zaldua, 2022, 277. or.). Hain zuzen, edizio digitalean zintzilikatu zen kontakizunaren lehen bertsioa, «Ipuina adulterioa da –hitzaurre gisa» izenburupean; gerora, 2022ko *Ipuina engainua da* ipuin-bilduman hainbat moldaketarekin berridatzi eta «Ipuina adulterioa da (gibel solas gisa)» birbataiatu zena. *Berria* egunkarian eginiko elkarrizketan adierazi bezala, kontakizun horri buruz honela mintzo da Zaldua:

Saiatu nintzen urte hauetan zehar ipuinari buruz pentsatutakoa, teorizatutakoa, hausnartutakoa esplikatzeko. Erronka zen hori modu praktikoa batean egitea, teoria eta praktika uztartzea nolabait, eta ipuingintza defendatzera eramaten nauten motiboak zeintzuk diren esplikatzeko gain, praktikan nola funtzionatzen duen demostratzen duen testu bat osatzea (Biain, 2023).

Hori horrela, garrantzitsua deritzogu euskal ipuinlari nabarmenatarikoa izateaz gainera, ipuinaren generoaren defendatzaile, teorizatzaile eta ekintzaile ere baden Zalduaren ipuingintzarekiko ikuspuntua aletzeari, ipuingintzaren generoan ipuingileak eurak izan baitira, batik bat, generoaren aldarrikapena, teorizazioa eta idazketaz arduratu izan direnak, bai eta euren ikuspuntu teorikoak idazketaren bidez praktikara eraman dituztenak ere. Ezagunak dira Edgar Allan Poerengandik hasi, eta geroago ere aipatuko diren Ernest Hemingwayren eta Julio Cortázarren teoriak, besteak beste. Euskal literatura-generoen bilakaeran ere ipuingileak eurak izan dira, nagusiki, ipuinaren generoa balioan jartzearen ardura aktiboa izan dutenak. Kritikagintza aintzat hartuta Ibon Egañak egindako azterketan ere halaxe biltzen da: «1990eko eta 2000ko urteetan ipuingintzan ibilbide luzea egin eta berezko genero gisa aldarrikatu duten idazleen ekinak, bestalde, (Zaldua, Linazasoro, Rodriguez, besteren artean) literatur genero literatur esparruan birkokatzea eragin dute» (Egaña, 2014, 291. or.). Zalduaren kasuan, gainera, «ekin» hori ez da ipuinak idaztera bakarrik mugatu; ipuingintzari buruzko hainbat eta hainbat artikulua idatzi ditu, edo mahai-inguruetan zuzenean parte hartu izan du eta, aztergai dugun ipuinaren kasuan bezala, zenbaitetan ipuinean bertan barreiatzen dira ipuingintzaren edota literaturaren gaineko gogoetak, fikziozko maskaren erabileraren bidez, hain zuzen.

Gainera, «Ipuina adulterioa da» kontakizunean zehar Zalduak aurrez argitara emandako hainbat idazki birmoldatzen dituela ere agerikoa da. Bereziki, «Lau kontsiderazio euskal ipuingintzaren inguruan» artikulua, aurrenekoz *Volgako Batelariak* blogean 2008ko irailean argitaratu eta, gerora, hainbat moldaketa eta eguneratzerekin, 2016an argitara emandako (*Euskal literaturaren alde (eta kontra)*) saiakeran biltzen dena. Neurri txikiagoan, baita liburu berean txertaturiko «Zergatik tematzen garen ipuingintzan» artikulua ere. Era berean, 2014an argitara emandako *Inon ez, inoiz ez* ipuin-bilduman *Azken ohar gisa* txertaturiko «Nobela nazioak, ipuin herrialdeak» testua ere aipatzen da ipuinaren bertsio berrian. Izan ere, 2022ko «Ipuina adulterioa da» kontakizunak testu-edukiontzia gisa ere funtzionatzen du, hainbat urtetan han eta hemen finkaturiko esanak orain zenbateraino mantendu, errepikatu, eraberritu, zehaztu edo aldatu diren ikusteko aukera eskaintzen baitu bertsio kondentsatu berriak.

Halere, «Ipuina adulterioa da» kontakizunaren amarru nagusia horretantxe datza; hots, fikzioan eta ipuinaren barnean barreiatzen direla ipuingintzaren inguruko teoria, iritzi, azalpen historiko, egile eta obren zerrenda, testuartekotasun-aipu edota bestelako ikuspegi kritikoak. Beraz, ipuingintzaren eta euskal narratibaren gaineko hausnarketak eta zehaztapenak ipuinaren barne-mekanismoen arabera garatzen dira, argumentuaren arabera baldintzatuta eta ipuinaren konta-teknikek mugatuta.

Narrazioaren azterketak ere helburu bikoitza eskaintzen du: esan bezala, ipuingintzaz eta, bereziki, euskal ipuingintzaz Zalduak eginiko gogoetak jakiteko aukera ematen du, batetik. Bestalde, gogoeta horiek Zalduaren ipuin batean txertatuta dauden heinean, ipuina bera aztertzeak Zalduaren ipuingintzaren zenbait gako aletzea ere ahalbidetzen du. Bederen, *Ipuina engainua da* ipuin-bildumako narrazioen ildoan barneratzen laguntzen digu, kontakizun hori epilogo gisa aurkeztean, nolabait, ipuin guztekien lotzen den testua bilakatzen delako.

Liburu berriko 17 ipuinotan nabaritu daiteke, esan bezala, ohiko 3-8 orrialdeko ipuinekin alderatuta, idazleak kontakizun aski luzeagoen aldeko hautua egin duela. Aztergai dugun ipuina da horren erakusle, bildumako luzeena den aldetik. Bestalde, eta ondoren gehiago sakonduko dugu, gainerako ipuinetan bezala, ipuin honetan ere bi hari jostorraz bakarretik sartzen ditu Zalduak. Are gehiago, beste ipuinetan bi argumentu-bilbe uztartu izanagatik, ipuin honetan ildo hori muturrera eraman eta saiakera-kutsuko gogoetak eta fikzio hutsa eskutik datoz. Irakurleak erabaki beharko du, beraz, ipuina adulterio-istorioaz mozorroturiko ipuingintzari buruzko saiakera ote den, edo ipuingintzari buruzko saiakera aitzakia bilakatzen ote den adulterio-istorio bitxi baten kontakizuna bideratzeko. Jon Martin-Etxebeste (2022) kritikariaren arabera ere aztergai dugun kontakizuna «bilduma honetako lanik borobilena» litzateke, eta Urkiza kritikariak ere ipuin horren ildoari jarraitzen dio, bereziki, bere iruzkina idazterakoan.

Azken batean, euskal ipuingileen antologia baterako idatzi zen «Ipuina adulterioa da» hitzaurreak bere asmoa bete ez eta, gerora, *Ipuina engainua da* liburuko ipuinen fikziozko epilogo ezin egokiagoa dela jabetzen gara. Liburuko beste ipuinetan jorratuturiko bideari heltzen dio egileak kontakizun honetan ere, eta ipuingintzari buruzko hausnarketa ezin interesgarriagoekin batera, beste ipuin antologiko bat idatzi du Zalduak.

2.2. Ipuinaren aurkezpena eta hipotesi nagusia

Aztergai dugun kontakizun luzeak 57 orrialde hartzen ditu eta, hutsarterik gabeko testu bateratu gisa aurkezten bada ere, istorioaren bilbean bi hari nagusi bereiz daitezke: enbor berean bat egiten duten, eta, aldi berean, euren adaxkak dituzten bi adar nagusi. Lehenik eta behin, «Ipuina adulterioa da» izenburua eta «Eta nobela, fidelitasuna» lehen esaldia Elena protagonistak bere koadernoan idazten dituen hitzak dira. Aingura-hitzen efektua bereganatzen dute, behin eta berriro errepikatu eta protagonistari ardatzetik ez aldentzen lagunduko dioten hitzak dira. Elena protagonista unibertitateko literatura-irakaslea da eta testu bat idazteko enkarguari aurre egiteko eskema

bat zirriborratzen ari da: «ipuingintzaren berezkotasuna eta autonomia aldarrikatu beharko lukeen testu bat» (Zaldua, 2022, 219. or.). Zeregin horretan, Elenari zinez baliagarriak zaizkio, akuilu moduan, Koldo senarraren iruzkinak edota Aritz Urigoitia ikaslearekin dituen eztabaidak. Gisa horretan, ipuinak plano metafikzional oso agerikoa eskaintzen du, liburu baterako epilogoia izango den testua idatzi beharrak ipuingintzari buruzko gogoetak eskaintzea justifikatzen eta ahalbidetzen duen heinean. Hori horrela, itxura guztien arabera, metafikzioaren definizio ezagunaren ildoan kokatzen da ipuinaren hasiera:

Metafiction is a term given to fictional writing which self-consciously and systematically draws attention to its status as an artifact in order to pose questions about the relationship between fiction and reality. In providing a critique of their own methods of construction, such writings not only examine the fundamental structures of narrative fiction, they also explore the possible fictionality of the world outside the literary fictional text (Waugh, 1984, 2. or.).

Camareroren (2004) bereizketari jarraituz, aztergai dugun kontakizunean «fikzio metaliterario tematikoa» nagusitzen da; hau da, ipuinak unibertso literario zehatz bati egiten dio erreferentzia eta sorkuntza literarioaren testuingurua irudikatzen da. Aldiz, ipuinean ez dugu aurkituko «fikzio metaliterario estrukturalik»; hots, ipuinaren sorkuntza-prozesua ez da agerian jartzen ezerein mekanismo formal edo egitura narratiboren bidez¹.

Bestalde, hasierako jolas metafikzional horrek beste ispilu-jolas bat ere eskaintzen du: Elena liburu baterako ipuingintzaren gakoek idazten ari den bezalaxe eskaintzen dizkigu Zalduak ere, aldi berean, ipuingintzari buruzko gakoak «Ipuina adulterioa da» saiakera-ipuin epilogoan. Gainera, ipuina idazteko Zalduak izan zuen mandatu bera da Elenaren ipuinaren abiapuntua. Ondorengo atalean ikusiko dugun bezala, esanguratsuak dira ipuinak ezkututzen dituen ispilu-jolasak, *alter ego* mozorroak zein bestelako traizioak eta errebelazioak.

Aipatu berri den alderdi metafikzional horri, ordea, beste hari gidari bat korapilatzen zaio. Kontakizunak aurrera egin ahala, Elenak adulterio-istorio bat du Aritz ikaslearekin –Koldo senarraren ezkutuan, noski– eta harreman horrek ezbaian jartzen du Elenaren ordura arteko oreka. Protagonistaren emozio-lurrikararen epizentroari dagokionez, Aritzen gaztetasunaz eta lerdentasunaz gain, literaturarekiko duen pasioa eta ipuingintzari buruzko eztabaidatzeko duen grina zaizkio erakargarri, tentazioan erortzen den arte. Hortik aurrera, kontua are gehiago korapilatzen da, eta bikote orotan garrantzizkoena hirugarren erpina dela esaten duen atsotitzari jarraikiz, Koldoren itzalak bete-betean ixten du ipuina. Horrek eragiten du, halaber, irakurlearen baitan, amaierako ezustearen efektua, eta ipuinari ipuin-ondoa ere gehitzen dio.

1 Ródenas de Moyak (2005) ere antzeko banaketa proposatzen du, kasu honetan «metafikzio narratiboa» eta «metafikzio enuntziatibo edo diskurtsiboa» izendapenak erabilita.

Idea edo hipotesi hori urratu nahiko nuke jarraian: ipuinaren bi plano edo bi alderdi ustez identifikagarri horiek elkar engainatzen dutela, hain zuzen. Hau da, azaleko bi planoen planteamendu hori ipuinean bertan traizionatzen da, Elena bilatzen ari den ipuingintzaren esentziaren aldeko argudioak eta beste generoekiko ezaugarri diferentzial erradikalaren gakoak ez direlako garatzen Elenaren koadernoan, adulterioaren abenturaren lerroartean baizik. Bestelako hitzetan esanda, Elenaren epilogoarako hausnarketek ipuingintzaren marko orokorra eta teorizazio baterako testuingurua eta gaiak zirriborratzen dituela agerikoa izanagatik ere, ipuingintzaren definizio baterako benetako gako bereizgarriak bikote-harreman adulterioaren istorioan moztortuta daudela, alegia.

3. ELENAREN KOADERNOA: «IPUINA ADULTERIOA DA, ETA NOBELA FIDELTASUNA»

Esan bezala, Elenak gibel-solas bat idatzi behar du ipuingintzaren balio esentzial bereizgarriak zehazteko eta definitzeko. Behin eta berriz errepikatzen den izenburuko esaldi horixe da, hain zuzen, oharren kaierean idazten duen aurrenekoa, eta gogoe-ta-kate guztiaren abiapuntua. Eta helmuga ere bai. Izan ere, hainbat hausnarketa eginda ipuinaren amaieran Elena berriro itzultzen da lehenengo hitz horietara, eta «planteamenduak badarama egia bat bere baitan» (Zaldua, 2022, 275. or.) ebatzi ostean, eskema osatua duela eta hitz-atzea erredaktatzea besterik ez zaiola falta adierazten du. Beraz, ipuina ez da, bere horretan, balizko epilogoaren idazketa-prozesua nola gauzatzen den, ipuinean soilik eskema mentala osatzeko ideiak eta ikuspuntuak Elenak nondik biltzen dituen ikusten baitugu. Baliabide horrek, ezinbestean, ipuingintzaz digresioak egitea ahalbidetzen duen bezalaxe, literaturaz eztabaidatzen duten Aritz eta Koldoren nortasunean sakontzeko parada ere eskaintzen du.

Elenak hipotesi argia du ipuinaren generoaz: ipuina literatur genero beregaina da eta, laburtasunaz gain, berezkoak eta bereizgarriak diren bestelako ezaugarri intrintsekoak zedarritu nahi ditu. Horrela, protagonistak bata bestearen atzetik jorratzen ditu ipuingintzaren aldeko argudiaketarako puntuak: generoaren bilakaera historikoa, ipuin tradizionalen antzintasuna vs ipuin literarioen garaikidetasuna, laburtasunaz edota egile-asmoaz bestelako ezaugarriak (amaiera-efektua, iradokitze-gaitasuna, lerroartekoaren garrantzia), Poeren ipuin fantastikoen eredia vs Txekhoven ipuin errealisten eredia eta argudioak indartzeko idazleen testuartekotasun-aipu ugari², gainerako generoekiko loturak eta hausturak (nobelarekiko bereziki, baina baita poesiarekiko ere); ipuinaren balizko generoak (mikro-ipuina, *short story cycle* eta postipuina³, esaterako)... *Postipuinen* kontzeptua dela eta, Tyzonek ondokoa proposatzen du bere artikuluan:

2 Borges, Hoffmann, Hawthorne, Poe, Txekhov, Maupassant, Quiroga, Max Weber, Kafka, García Márquez, Rulfo, Cortázar, Eloy Tizón, Colm Toibíne, Calvino, Faulkner, Joyce Carol Oates, Mercé Rodoreda, Ian McEwan, Ricardo Piglia, Frank O'Connor, James Joyce, Alice Munro, Carver...

3 Hain zuzen, Eloy Tizónek (2015) idatziriko «Postcuento» artikuluari erreferentzia egiten dio Zalduak.

Ya no tiene sentido la vieja aspiración de producir cuentos perfectos, manicurados y esféricos, en los que «nada sobra y nada falta». Al contrario; ya no hay cuentos «normales». Los cuentos que aún merecen la pena tienden a ser excesivos, desabrochados y con algo de febrícula. Desafían las normas clásicas, las incumplen o subvierten a sabiendas. Ya no hay cuentos, sino desviaciones de cuentos. El postcuento ha irrumpido con la fuerza de una anomalía o un contagio (Tyzon, 2015).

Gogoeta zinez iradokitzaileak eskaintzen ditu Elenak, ipuingintza tradizionalaren eta garaikidearen arteko «hesi nagusia morala» zela zehazten duenean, esaterako: «[ipuin tradizionalak] esplizituki edo inplizituki barneratzen zuten ikaskizuna, ipuingintza garaikideak baztertzen duena, hain zuzen» (Zaldua, 2022, 221. or.).

Ispilu-jolas agerikoak aurkezten dira «Ipuina adulterioa da» kontakizunean, eta has-tapen-planteamenduak Zaldua idazlearen abiapuntua berrartzen duen hein berean, nabarmena da Elena Zalduaren *alter ego* gisa aurkezten zaigula. Protagonistak aurrez Zalduak jorraturiko argumentuak bildurik dakartzkigu, «Lau kontsiderazio euskal ipuingintzaren inguruan» artikuluan esandakoak berridaztean, edota *Inon ez, inoiz ez* (2014) ipuin-bildumako «Euskal herria Ipuin Herrialdea» testuari erreferentzia egitean. Mozorro-jolas hori ere ez da ausazkoa, autofikzioarekin baino gehiago, beste zerbaitekin lotu beharko genukeelako: Elena *alter ego* gisa baliatzeak berez dakar Zalduaren aurreko testu eta gogoeten berrerabilera, baina nago, bereziki, euskal ipuingintzaren xehetasunak azaltzerakoan, edota euskal idazle eta obren kanon-proposamen zehatza egiterakoan, Zaldua idazlearen beraren ikuspuntu propioari iskin ez egiteko konpromisoa eta erantzukizuna nagusitzen direla.

Hori horrela, euskal ipuingintzari dagokionez, ohar batzuk sartzeko beharra sentitzen du Elenak, eta 1960-1970eko hamarkadari gaingiroki erreparatu ostean, 1980ko hamarkadako ez-tandara egiten du jauzi: «Alde horretatik, hobe da zuzenean Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiarengana jotzea, generoaren euskal aldaeraren ezartzaile zinezkoak bilatzeko» (Zaldua, 2022, 246. or.). Eta jarraian zirriborrotzen du gainerako egileen eta obren ibilbidea, «oso pertsonala ezinbestean». Zalduarena bezain pertsonala, agidanez. Zerrenda luzea izanagatik, galbiderik ez duen neurrian, osoa ekarriko da:

Inazio Mujikaren *Azukrea belazeetanetik* hasi eta Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasara*. Eta idazten doa bere kaiertxoan, nahiz eta noizean behin ordena kronologikoa ez duen errespetatzen eta gorantz edo beherantz zuzentzen dituen gezi gorritxoak gehitu behar dituen: Xabier Montoiaren *Emakume biboteduna* eta *Gasteizko hondartzak*, Arantxa Iturberen *Ezer baino lehen*, Juan Garziaren *Itzalen itzal*, Pello Lizarraldearen *Sargori*, Harkaitz Canoren *Telefono kaiolatua* eta *Neguko zirkua*, Patxi Iturregiren *Haize kontra*, Jose Luis Otamendiren *Euri kontuak*, Javi Cilleroren *Hollywood eta biok*, Jokin Muñozen *Bizia lo*, Uxue Apaolazaren *Umeek gezurra esaten dutenetik* ere, Unai Elorriagaren *Iturria*, Karlos Linazasorearen *Diotenez*, Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrrak*, Eider Rodriguezen *Haragia* eta *Bihotz handiegia*, Ana Malagonen *Lasai, ez da ezer gertatzen*, *Geratu zaitezte gurekin* eta *Ez dakit zertaz ari zaren*, Urt Zubiaurreren *Izenik gabeko lurrak*, Garazi Arrularen *Gu orduko hauek*, Gotzon Herrosillaren *Gaur galtzea*

tokatzen da, Aintzane Usandizagaren Kabitu ezina, Iñigo Aranbarriren Munduko tokirik ederrena, Santi Leoneren Liztor mutanteak (Zaldua, 2022, 246.-247. or.).

Halaxe aletzen ditu, ondotik, euskal ipuingintzaren merkatuaren bitxikeriak, txikitasunaren abantailak eta bestelako xehetasun zenbait. Halaber, Elenaren argudiaketa ez da bakarrik ehuntzen: gogoeten kontrapuntu kitzikatzailea Aritz ikasleak eta Koldo senarrak eskaintzen diote. Aritzek, eskolako eta tutoretzetako eztabaidetan, ipuingintzaren bilakaerari testuinguru bat eskaintzen dio, eta gainerako generoekin erlazionatzen du ipuina. Koldok, irakurle ona bada ere, euskal literaturaz paso egin eta gaztelaniaz edo ingelesez idatziriko literaturak gailentzen ditu: «ondorio gisa euskarazko literatura argiki azpigaratu bat zela gehituz» (Zaldua, 2022, 249. or.). Elenak, halere, bere hausnarketarako *punching ball* gisa erabiltzeko joera izan du, azkenaldian literaturaz hitz egiteari utzi badiote ere. Aldiz, Aritzek idazlea izan nahi duela ere iradokitzen da (Zaldua, 2022, 228. or.) eta euskal literaturan interesatuta egoteaz gain, Koldoren trazakoa ere badela: «Horregatik ere gustatzen zitzaion Aritzekin egotea. Hark ere konpetentzia handiagoa erakusten zuen literatura “unibertsaleko” kontuez hitz egiten zuenean euskal literatura-koetz aritzen zirenean baino» (Zaldua, 2022, 249.-250. or.). Literaturarekiko harreman horretatik harreman adulteroa sortzen da, ezusteko amaiera duen harremana, jada nabarmendu den bezala ispilu-jolasak errenkan baitatuz «Ipuina adulterio da» kontakizunean.

Elenak ipuingintzaren gaineko eskema egituratzean amaitzen da ipuina, eta erre-dakzio-lana geroko uzten du. Horrela, ezin pertinenteagoak diren aipatu gogoeta eta hausnarketez gain, ipuingintzaren gaineko saiakera eginbidean geratzen da, nolabait, eta ipuinean une gakoetan errepikatzen den «ipuina adulterioa da, nobela fideltasuna» esaldiak mantra izaera bereganatzen du, izenburutik bertatik. Ipuinaren definizio-zailtasuna maxima batekin konpontzeko amarru horrekin, ordea, definizio-ezintasun hori bera da, neurri batean, azaleratzen dena. Izan ere, ipuingintzaren definizioen artean egon den eta dagoen desadostasunak berak erakusten digu teorikoki ere definigaitza izan den generoa dela ipuina, eta Zalduaren kontakizunak, neurri batera, hori berori seinalatzen digu, alderdi kontzeptualean ipuingintzak duen hutsunea, hain zuzen. Tituluak ere horixe nabarmentzen du, gainera. Ipuinek ipuinei buruzko definizioekin jokatzeko duten era adulteroa, hain zuzen. Kontuak badu ironiatik ere, ipuingintzaren definizio eraginkor edota gehien aipatuenak ere halako maximetan oinarritu izan diren heinean. Hortxe ditugu, adibidez, Cortázarren (1994, 372. or.) «la novela gana por puntos, mientras que el cuento gana por *knockout*» edota Hemingwayk (1993, 98. or.) ipuinetan aplikatzen zuen icebergaren teoriarena: «La dignidad de movimientos de un iceberg se debe a que solamente un octavo de su masa aparece sobre el agua», Zalduaren ipuinean saihesten diren bi erreferentzia argi aipatzearren. Asko dira aipaturikoekin batera ipuingintzaren berezitasuna nabarmentzerako unean nobelarekiko konparazioan erori direnak. Hemingwayrena albo batean utz badezakegu ere, Gabriel García Márquez bera ere horren adibidea da. Halakoek erakusten digute, ipuingintzak, oraindik, definitu ezin izan den zera bereizgarri bat baduela sinesten dutela adituek, baina, horrekin batera, argi uzten dute ipuingintza bide horretan beti lehiatu izan dela nobelarekin. Zalduak ere auzi horri keinu egiten dio bere ipuinean, ironiatik egin ere; ipuingintzaz diharduen kontakizun batean, hura definitzeko erabiltzen den lehen atributua nobelarekiko duen desberdintasuna izatea bada aski probokatzailea.

Alabaina, ipuinean esplizitatzen den Ricardo Pigiaren aipuak bestelako arreta merezi du: «Ricardo Pigiaren ipuinen baitako A eta B istorioen arteko konbinaketa guztiak, alegia, argentinarrak defendatzen baitzuen ipuin orok bi istorio kontatzen duela eta aldatzen dena bi plano horien arteko harremana baizik ez dela» (Zaldua, 2022, 237.-238. or.). Zehazki, Pigiak bi maxima proposatu zituen: batetik, ipuin batek beti kontatu behar dituela bi istorio; eta bestetik, ezkutuan geratzen den istorio hori dela ipuinaren formaren eta bere aldaeren funtsa (Pedroza, 2014, 39. or.).

Pigiaren ikuspuntua argudio egokia izateaz gain, kasu honetan, erabat metafikzionala dela berretsi behar da; autoerreferentziala bai ipuinarekiko, bai *Ipuina engainua da* liburuarekiko. Zalduak adierazi bezala: «istorio bat baino gehiago kontatzeko asmoa nuelako istorio bakoitzaren barruan» (Biain, 2023).

«Ipuina adulterioa da» kontakizunean ere bi planoen arteko nahasketan eta korapiloan datza gakoak: Elenaren koadernoaren A planoan, erabili dugun terminologia aintzat hartuta, ipuinaren generoaren esentzia eta diferentzia erradikala aurkitu nahi bai, baina ipuingintzaren gakoaren bilaketaren testuinguratzeko eta girotze-lana besterik ez da. Aldiz, gako nagusiak Elenaren, Aritzen eta Koldoren arteko hiruko harremanaren B planoan barreiatzen dira, lerroartean izan arren. Aren eta Bren arteko konbinaketa guztien ondorioz lortzen du batasun-efektua, hain justu, aztergai dugun ipuinak ere.

4. ELENA, ARITZ (ETA KOLDO): ADULTERIOAREN IPUINA

Elenaren eta Aritzen arteko adulterioaren planoaren harreman katramilatsuen kontakizuna da finean, irakasle-ikasle bikote-harremana, senar-emazteen artekoa eta, une zehatz batean, alabaren laugarren erpina korapilatzen dituen. Halere, harremanen nahaste-borraste horretatik eratorri behar dira, besteak beste, ipuingintzaren gako nagusiak, adulterioaren argumentuaren moztorrepean, betiere.

Elenaren koadernoko planoan, ikusi bezala, testuartekotasun-aipuak ipuingile, idazle eta bestelako teorikoenak ziren. Oraingoan, ordea, argudiaketa erabiliriko zenbait erreferentziak bestelako esangura bereganatzen dute, Elenaren eta Aritzen arteko harremanaren itzalean irakurriz gero. Edo, nahiago bada, Elenaren eta Koldoren harreman higatuarekin lotuz gero. Hori horrela, Koldok eta Elenak Ian McEwan ipuingile edo nobelagile trebeagoa den eztabaidatzerakoan, idazlearen liburuen izenburuek bestelako balio eta iradokizun-gaitasun bat biltzen dute: *Lehen maitasunak*, *azken errituak*, *Izara artean* eta *Maitasun iraunkorra* izenburuek, esaterako. Gauza bera gertatzen da Alice Munroren obren izenburuekin ere: *Etsaiak*, *lagunak*, *ezkongaiak*, *maitaleak*, *senar-emazteak* eta *Nesken eta emakumeen bizitzak*. Ez alferrik, une jakin batean Elena, ipuingintzaz gogoetatzea bazterrera utzita, maitasunaren gainean hasten da hausnarrean, eta horretarako ere idazleen aipuak baliatzen ditu: hala nola, Tomasi di Lampedusaren, François La Rochefoucaulden eta Ricard Russoren esanak.

Kontuak kontu, Elena inoiz baino urrunago sentitzen da Koldorengandik, seme-alabak nagusitu zaizkie jada, eta Aritzekin seko maitemintzen da. Hasiera batean, ikasle

askoz gazteago batekiko erakarmen intelektuala zena (senarrarekin txantxetan aritzearaino), erakarmen erabat fisiko bilakatzen da (senarrari txantxak ere ezkutatzearaino). Harreman adulteroari ekiten diote, ez zailtasunik gabe, ordea. Adin-tarte zabalak eragindako gatazkak, batetik; Aritz Elenarekin elkartzeko eragozpenak jartzen hasten dela, bestalde; alaba ere Aritzez galdezka hastea, azkenik... Egoerak erabat obsesionatzen du Elena. Horren erakusle da alabarekin eta Aritzekin duen amesgaiztoa⁴. Adulterioaz eta fideltasunaz, aldiz, honako aitoren hau egiten du: «Azken batean, Aritzez maiteminduta egonik ere, Koldo ere maite zuen, beste era batean –beste era *horretan*– izan arren» (Zaldua, 2022, 255. or.).

Hemen zehaztuko ez diren arrazoiak tarteko, Elenak Aritzen mugikorra arakatzen du ezkutuan, eta Koldorekin izan dituen mezuak aurkitzen ditu. Traizio bikoitza, beraz. Ondotik dator ipuineko sententzia garrantzitsua: «Eta ipuina berreraiki egin zuen istant gutxitan bere buruan» (Zaldua, 2022, 272. or.). Esaldi hori da aztergai dugun ipuinaren gako nagusia eta, era berean, ipuingintzaren ikuspegiaren inguruko gako nagusia ere.

Ipuinaren amaiera gertu da, eta errebelazioak *plot twist* itxura izanik ere, dena aldatzen eta osatzen da une zehatz horretan, bi planoek bat egiten dute, eta ipuinak bestelako efektua bereganatzen du. Batetik, egia delako, Elenak bezalaxe, irakurleak ere ezustea hartzen duela jakitean Aritz Elenarekin harreman adultero bat izatera bultzatu duena Koldo izan dela. Baina, horren gainetik, bestalde, ipuina berreraiki beharrarena ere bada ipuingintzaren bereizgarri erradikala eta balio esentziala. Ipuinaren generoak, laburragoa izanagatik, kondentsazioa, tentsio narratiboa eta bestelako hainbat ezaugarri ere berezkoak dituen, irakurleak ipuina berreraikitza ere bultzatu beharko luke. Ipuina berreraiki beharra da, ondorioz, ipuingintzaren balio intrintsekoetako bat. Aipaturiko ezaugarri hori, oro har, ezein testu literariorik aplikagarria izanagatik ere, egia da testua zenbat eta laburragoa izan, hainbat eta berrirakurtzeko errazagoa izango dela. Are gehiago, Zalduak ipuinean bertan planteatzen duen ispilu-jokoarekin jarraituz, bereziki, ipuina eleberriarekin alderatzen badugu. Era berean, testua zenbat eta laburragoa izan, hainbat eta gehiago izango dira irakurleak bete beharreko hutsuneak ere, eta, gisa horretan, ipuingintza poesiarekin alderatu izan da. Dena den, inpresioa ere badugu ipuinetan sarritan gutxierekin asko esatearen maxima gailentzen dela eta, halakoetan, lerroartean ezkutatzen dena irakurleak berrinterpretatu beharko duela, ipuinaren muinera iritsi nahi bada.

Beraz, *berrirakurgarritasuna* litzateke ipuinen beste balio diferentzial bat eta, ahal dela, berrirakurtzerakoan aurrez bilatu ez diren aurkikuntzak gorde beharko lituzke ipuinak, ipuina engainua izanik, behin engainatua izatean atzera begirakoa egitea ezinbestekoa izaten baita.

4 Gaitik gehiegi alenduko ginateke, eta beste baterako utziko dugu alabaren bisexualitatea itzulitururik gabe jorratzen den beranduagoko eszenaren azterketa.

Horrenbestez, «Eta ipuina berreraiki egin zuen istant gutxitan bere buruan» aipuaren ostean, adulterioaren ipuinean ere ipuingintzaren gakoak ezkututzen direla ondoriozta daiteke. Adibidez, Aritzek Elenari *ghosting* egiten dionean, elkartzeko eragozpenak eta aitzakiak luzatzean, ondoriozta liteke ipuinak ere *ghosting* egin behar diola irakurleari; hots, irakurlea zintzilik utzi behar duela, azalpen gehiegizkorik gabe, elipsien bidez suspensean. Hutsuneak betetzea, ondorioz, irakurlearen esku geratzen da. Elena ere jabetzen da buruan berreraikitzen duen amaierako ipuinak hutsuneak dituela, eta irakurle batek ipuin baten aurrean egin dezakeen gogoeta hauxe darabil bere kabutan: «Bazekien hutsuneak zeudela ipuinean. Elipsiak. Desfaseak. Eta ziur zegoen egunen batean osatu ahal izango zituela. Baina ez oraindik» (Zaldua, 2022, 274. or.). «Ipuina adulterioa da» bezala, ipuin on bat ez delako inoiz amaitzen.

Bestalde, ezusteko amaierarekin, praktikara eramaten ditu Zalduak Elenak aurrez buruan zirriboratu dituen ipuinaren alderdi teorikoak eta ikuspuntuak. Horrela, Elenak Koldorekin Aritzi buruz gehiago ez hitz egitearenak Txekhoven armarena dakar gogora⁵, isiltze horretatik ateratzen baita, amaieran, ezkutukoa agerira.

Amaitu aurretik, plano horretako testuartekotasun inplizitua ekarri nahiko genuke hizpidera. Ipuin osoa literatura erreferentziaz beteta egon arren, testuartekotasun lotura nabarmenenak ere leerroartean edo aipatu gabe geratzen direla esatera ausartuko garelako. Izan ere, «Ipuina adulterioa da» kontakizuneko testuartekotasun zuzenena, nolabait, Txekhoven «Dama txakurtxoduna» izan liteke; Elenaren kasuan, «Dama ipuinduna» izan daitekeena, hain zuzen. Batetik, adulterioaren istorioaren plano dugu, XIX. mendeko Txekhoven ipuin goraiapatueneko Anna Sergejevnaeren eta Dmitri Dmitrix Guroven istorioa bezala, irekita geratzen dena, nahiz eta Zalduaren ipuinean Koldo senarrak Annaren senarrak baino inplikazio gehiago izan⁶.

Azken gogoeta bat hiruko harreman literarioaz. Aritzek, gaztea eta ederra izanda ere, Elena literaturari buruz izaten dituzten elkarrizketen bitartez seduzitzen du, eta amaieran jakiten da Aritzen jokabidearen atzean Koldo ezkututzen dela eta ipuingintzari buruzko argudio haiek guztiak Koldorenak zirela, finean. Baten batek pentsa lezake Elena, azken batean, Koldorekin birmaitemintzen dela, Aritz ikaslearen bitartez. Literatura ere sedukzioaren jomuga bilakatzen da eta aldi berean, ipuin batek irakurlea seduzitu eta jolasaren bidez erakarri behar duela ere ondoriozta daiteke, «Ipuina adulterioa da» kontakizunak amaiera bat izan arren, bukaera horren gaineko interpretazio guztiak ere irekita geratzen baitira. Irakurleari dagokio, nori bestela, ipuinaren konbinaketa guztien artean gehien betetzen duena hautatzea.

5 Txekhoven armarena printzipio dramatiko bat da eta horren arabera, narrazioan elementu bakoitzak funtzio eta erabilera zehatz bat izan behar du; bestela, ezabatu egin beharko litzateke.

6 Hain zuzen, Zalduak jada Txekhoven «Dama txakurtxoduna» ipuinean oinarrituta eta ageriko testuartekotasun estrategiekin, «Itsas pasealekuan» izeneko ipuinean (*Traizioak*, 2001) omenaldia egiten dio Txekhoven ipuin ezagunari. Bestalde, «Ipuina adulterioa da» kontakizunean *Madame Bovary* eta *Stoner* eleberrietako zantzuak ere ikusi uste izan ditugu, eta gurera etorri, baita Saizarbitoriaren narratibako zantzen bat ere. Argudio sakonagoen premian, ordea, gaurkoan aieru edo proposamen soil gisa utziko dugu irakurketa-bide hori.

5. ONDORIOAK

Iban Zalduaren *Ipuina engainua da* liburuko «Ipuina adulterioa da» kontakizuna xeheki aztertu ostean, ezinbestekoa dugu ipuin horrek eskaintzen dituen irakurketa-maila ugariari erreparatzea. Ipuinaren hastapen-planteamenduak zailtasun berezirik aurkeztu ez arren –ipuingintzaren inguruko saiakera baten gogoeta meta-fikzionalak, batetik, eta adulterioaren abenturaren fikziozko kontaketa, bestalde–, gauzak korapilatzen hasten dira eta Pigliaren ipuinaren formulazioa bere eginez, bi istorioen kontaketa eta bien arteko uztarketaz gain, bestelako konbinazioak ere ahalbidetzen dira. Are, amaieran nabarmena da ezkutuan geratzen den istorio hori da, oroz gain, gailentzen dena.

Gisa horretan, ipuinak bestelako amarru bat ezkututzen duela ere berretsi dugu, berez Elenaren koadernoaren istorioa litzatekeelako ipuingintzaren gakoak azaltzeko planoak; baina, esan bezala, plano horretan ipuingintzaren inguruko oinarriak azaldu, eta testuinguratze-ariketa bat egiten da, «Ipuina adulterioa da, eta nobela fideltasuna» definizio-mantrari tira eginez. Aldiz, adulterioaren ipuinaren planoan mozorropean ezkututzen eta txertatzen dira, orobat, ipuingintzaren gaineko ekarpen nagusiak, hala nola amaieren erabakigarritasuna, ipuinak berreraikitze beharra, berrirakurtzeko ipuinak eskaintzen dituen abantailak, *ghosting* narratiboak eta bestelako isiluneak irakurleak bete behar dituela, sedukzio eta jolas literarioaren garrantzia...

Laburbilduz, ipuingintzaren teoriarakatu, autore, iruzkin, obra eta auzi literarioen gainean itzuli bat egin, eta Tyzonek proposaturiko postipuinaren kategoriara hurbiltzen den kontakizun metafikzional jolastia idaztearekin batera, Zalduak ez dio muzin egin amaieraren efektuaren lilurari (irekita geratzen den arren) eta, horrenbestez, ipuin moderno klasikoenen kutsuaren ildoari ere, hein batean bederen. Izan ere, engainua nagusitzen da uneoro: ez soilik jada aipatu ditugun mailetan, ezpada orain artean ipuinari atxiki zaizkion ezaugarri modernoetan ere. Horrela, Zalduak ere ez du ipuin laburrik sortzen; kasu honetan bukaera ustekabekoa da, baina ez da itxia, irekia baizik. Pigliaren sailkapen duala jarraitzen du, hots, ipuinek bi istorio kontatu behar dutela, ikusten dena eta ikusten ez dena, baina biak jartzen ditu agerian, A eta B planoak; are, haratago doa, Zalduak ez dituelako ipuin honetan bi «istorio» bakarrik kontatzen, eta hitzen ekonomia ez da ezaugarri nabarmenena kontakizun honetan.

Horrenbestez, Zalduaren ipuina ere aurrez zehaztu ditugun Tyzonek postipuinaren ildoan kokatzen da. Tyzonek bere artikuluan zedarritzen dituen ezaugarriekin ehundu du ipuina Zalduak. Gutxienik, diferentzia bat bai nabari daitekeela Poeren ipuin modernoaren kontzepziotik, geroago Txekhovek hartu eta birformulatu zuen eredu horretatik, Zalduak «Ipuina adulterioa da» kontakizunean, edota bere azken liburuko ipuinetan, eskaintzen duen eredura. Ondorioz, esango genuke aztergai izan dugun ipuina hitz-atze bezala jartzeak justifikatu egin nahi duela, apur bat, gaur egungo ipuin modernoaren bilakaera eta sortzen ari diren eredu askotarikoak, postipuinetik hurbilago daudenak. Zalduaren ipuinak ere engainu egiten diolako, horrenbestez (ez ezaugarri guztietan, baina gehienetan), ipuin modernoaren kontzepzio horri ere.

Amaieran, traizio-egilea da traizionatua, eta dena engainu baten parte da, ezer ez da dirudiena, dena fikzioa besterik ez da; egiaz mozorroturiko gezurra, gehienez ere. Eta, halere, irudimenaren eta jolasaren amarru literario bikain bilakatzen da «Ipuina adulterioa da», argumentuaren trikimailuak baliatuz, ipuingintzaren gakoak aletzearekin batera, gako eta korapiloz beteriko ipuina osatu baitu Zalduak.

6. ERREFERENTZIAK

- Biaín, A. (2022ko otsailaren 12a). Ez dut literatura obsesiorik gabe ulertzen. *Berria*. https://www.berria.eus/kultura/ez-dut-literatura-obsesiorik-gabe-ulertzen_1330272_102.html
- Camarero, J. (2004). Las estructuras formales de la metaliteratura. In I. Iñarrea Las Heras & M.J. Salinero Cascante (koord.), *El texto como encrucijada: estudios franceses y francófonos* (457.-472. or.) Universidad de la Rioja.
- Cortázar, J. (1994). Algunos aspectos del cuento. In J. Alazraki (arg.), *Obra Crítica: 2. libk.* (365.-385. or.). Alfaguara.
- Egaña, I. (2014). *Izan gabe denaz. Hogeita hamar urte hedabideetako euskal literatur kritikan*. Utriusque Vasconiae.
- Hemingway, E. (1993). *Muerte en la tarde* [itzul. L. Aguado]. Planeta. (Jatorrizko obra 1932an argitaratua)
- Martin-Etxebeste, J. (2022ko azaroaren 12a). Bazen behin, ipuina. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=8669>
- Pedroza, L. (2014). *Mujeres que cuentan. Geografía del cuento mexicano del siglo XX e inicio del XXI*. [Doktore-tesia, Universidad Complutense]. Docta. <https://hdl.handle.net/20.500.14352/25602>
- Ródenas de Moya, D. (2005). La metaficción sin alternativa: un sumario. In A.J. Gil González (koord.), *Metaliteratura y metaficción. Balance crítico y perspectivas comparadas* [ale berezia]. *Revista Anthropos: Huellas del Conocimiento*, 208, 47-49.
- Tizón, E. (2015eko urriaren 23a). Postcuento. *El Cultural*. https://www.elespanol.com/el-cultural/opinion/20151023/postcuento/73742787_0.html
- Urkiza, A. (2022ko urriaren 16a). Ipuinari leial. *Berria*. https://kritikak.armiarma.eus/?page_id=4003&non=oro&tes=IPUINA%20ENGAINUA%20DA
- Waugh, P. (1984). *Metafiction. The theory and practice of self-conscious fiction*. Methuen.
- Zaldua, I. (2008ko irailaren 4a). Lau kontsiderazio euskal ipuingintzaren inguruan. *Volgako Batelariak*. <https://eibar.org/blogak/volga/lau-kontsiderazio-euskal-ipuingintzaren-inguruan>
- Zaldua, I. (2010). Itsas pasealekuan. In *Ipuinak: antologia bat* (89.-94. or.). Erein.
- Zaldua, I. (2014). *Inon ez, inoiz ez*. Elkar.
- Zaldua, I. (2016). *(Euskal) literaturaren alde (eta kontra)*. Elkar.
- Zaldua, I. (2020). *Ipuina adulterioa da*. Booktegi. <https://www.booktegi.eus/liburuak/ipuina-adulterioa-da/>
- Zaldua, I. (2022). *Ipuina engainua da*. Elkar.

